

AINGERU IRIGARAY

Mariano Izeta

Nere oroitzapen maitekorrena Aingeru Irigarai zenari, gure adiskide euskalzale eta egiazko nafartarra. Bere bizi guzia euskararen alde lanean eginahal guziekin, bere aita zenaren erakaspén yakingarriak bihotz barneraño sartuak zauzkala. Nafarroa beti bere bihotzean eta Auritz eta Garazi aldeko euskara gogoan. Garrantzi haundiko liburuak argitaratuak ditu. Idazle eta ikertzaile ospetsua, Nafarroako kondaira, ohiturak, erranairuak eta gure Erresumako euskalkietan ere lan miresgarria eginik. Euskaltzain oso Nafarroako ordezkari bezala, bere lanek beti izan dute goi-mallako arrakasta.

Duela hogeí urte eta gehiago ere, nere lehenbiziko nobelatxoá «Dirua Galgarri» Auspoa Liburutegiak argitaratu zuelaik, orduan ere Aingeru adiskidea-ren laguntza behar izan nuen eta aski ona halare, nere liburuaren Aintzin Solasa berak egin baizatan «Lehen Peredikia» izenburuarekin, berehartañ gauza interesgarriak agertu zituela. Orduan ere Aingeru adiskidea izan nuen laguntzale eta maixu.

Urte aunitzez agertu dira bere idazlan yakingarriak «Diario de Navarra»ko «Nafar Izkuntzan Orria»ñ «Apat Etxebarne» izengoitiarekin. Urte hoietan nere idazlanak eta bereak ere zenbat aldiz agertu ote dira egunkari hortan, bion artean aunitz aldiz orri osoa betetzen baiginuen.

Aingeruk bere jakitatea erakutsi izan du, idazle bezala, hizkuntzalari eta Nafarroako kondairagile bezala ere. Bere bilduma aberatsa dela ez dago dudarik, hainbertze urtez Nafarroako zoko guziak arakatuz, ele-xahar eta paper interesgarriak bilduz, badu merezimendu. Maite zituen bertsolariak ere eta Xalbador zena zaukan bere gogoan. Behin baño gehiago erran izan daut:

«Herria», Axular-en «Gero» eta Xalbador-en «Odolaren Mintzoa» irakur zazu, hor dituzu iturri garbiko euskara aberatsa eta mintzaira-ren edertasunez yabetzeko hortxe dauzkazu irakurgai atsegingarriak»

Eta egia erran hoiek guziak atsegin haundiarekin irakurtzen ditut. Gure euskal kultura indartzekotan denok behar dugu lan hortara lotu eta zabarke-riak alde batera utzirik yarraiki geren bide zuzenetik. Euskal izpiritua daukate-

nak nabari dira, erakusten baitute beren zaletasuna eta bai kezka ere. Holaxe zen gure adiskide Aingeru, bizi guzian kezka horrekin eta lanean atsedetik hartu gabe Jaunak bereganatu arte. Aingeru joan zen bainan hemen gelditu garenok haren urratsen gibeletik yarraikiz beti aintzinat, euskal izpirituaren zingie itzali ez dadin.

Aingeru Irigarai zenak ereindako haziak zitu ona eman dezala. Ohore eta goresmen gure adiskide maiteari.